

GERNIKA-LUMO / Liburutegia itxi egingo dute zaharberritze obregatik

Hogei urte bete ditu udal liburutegiak eta zerbitzu berriak eskaini gura dituzte

Erredakzioa

Datorren asteko zapatara arte zabalik egongo da udal liburutegia, baina, bi astez zarratu egingo dute, uztailaren 16tik abuztuaren 3ra. Zerbitzuen antolaketan aldaketak eta eraikinean zaharberritze lanak egingo dituztela esan dute liburutegiko arduradunek.

Zaharberritze lanek bat egiten dute liburutegiaren 20. urteurrenagaz. Obrak bukatu ostean, zerbitzu berri bat eskainiko dute: bideoteka zerbitzua. Ikus-entzunezko materiala liburutegian bertan kontsultatu ahal izango da, eta horretarako, DVD irakurgailuak eta pantailak ipiniko dituzte.

Liburuak turismo bulegora

Liburutegiko libururen bat etxera eroan duenak turismo bulegoan uzteko aukera du. Baina, obrak amaitu bitartean, ezin izango da mailegu berririk egin. Ikasteko gelak kultur etxean egokitu dituzte.